

GAZTE NAIZ

"ZINEMAK SORTUTAKO MITOAK"

Gizaldia mitoaren bearrean arkitzen da. Bere irudimena nun jarri lezakean billatzea gustatzen zaio, era ontan bere burua, izatea gustatuko zitzaiokeen eran ikusten bai du, ala ez baldin bada ere.

Danok irakurri ditugu antziñako Greziako jainkoen ipuiak, denbora aietako, egiazko edo asmatutako eroen ibillialdiak, aiek ere mito betetako garaia ziran.

Gaur egunian ez degu altasun edo posibilitate aundirik eroe bihurtzeko. Erri aundietan bizi gera, lurralde zabaletan, eta bizia aldaketarik gabe beti berdiña azaltzen zaigu. Itxusia dan neskatxak ezin ezer egin polita izateko, langilleak ba daki zortzi ordu lan egin bearko duala bear bada bearrezkoen duana ere ez lortzeko. Orregatik mitoak billatzen ditu, mito oieri begiratuaz, amets egingo du eta egunero bizimodutik ametsetan ba da ere atera egingo bai da.

Baña nun eta nola sortzen dira mito oiek? Dударik gabe geienak zinematik sortzen ditu. Zineman azaltzen zaizkigun gauza zoragarriak edozeineri inbiria sartzen dio-

te. Eta gañera zinemarekin negoziua egiten duanari bearrezkoa zaio jendeak ontzat emango duan mito bat sortzea, orretarako egokia dan norbait aukeratzeko dute, geienetan jende gutxi ezagutu dezaken norbait, gero arpegia, oiturak, personalidadet aldatuko diote, bere bizitzaz istori berri bat asmatuko dute andere bat biurtzea lortzen dutenean, esan diteketo mito berri bat lortu dutela, jendea atzetik eramango duan norbait eta bat batean beoien patrika bete dezakean zer bait.

Zinematik lortutako personaje aukeratu gure artean bein ere ikusiko bainan aaztu ezin zaion markesa illuragarria, edo irabazi ezinezko kapitana betiko izango dira jendearen pentsamentuan. Baña papera egiten dutenak, beren zori txarrez zelan itxura besterik ez duten bereala bukatzen dira, eta geienak illunpean bukatzen dute beren bizitza, garai batian ainbeste agurtu zituzten lagunengandik aaztuak eta jendearen erruagatik zapalduak.

GURMENDI TAR ARANTZA

PERSONAJE BILLA

MIKEL LABOA

Duela egun gutxi, diska berri bat entzun nuen, Mikel Laboaren lehen diska. Abeslari gazte onek aintziñako abestiekin osatu du bere eresorta, baiñan aren abesteko erak eta gitarraren akordeak soñu zaharrak, esnatu bakarrik ez, baizik eta gaztetu, era ontako aude berri bat ematen die.

Lehendabiziko diska orretan ze abesti grabatu dituzu Mikel?
—O Pello, Pello, Aurtxo txikia, Bererretxan eta Amonatxo. Denak zaharrak?



—Amonatxo ezik (Barbier da egillea), beste guzien egillea ez czaguna da, ortikan atera urte batzuek izango dituztela... gañera beren gaia... Bererretxan esate baterako, Euskal Herrian XV garren gizaldian (Beamontes'en eta Agramontes'en hartean) sortzen ziren gertaketa bat geio edesten da, zelan Lerin'eko kondeak Bererretxe jauna aile zuen. Etxerretitik Ezpeldoyarako bidartean dagoen harri irargai batek gogorazten du gertakizun au...

Gauz auetaz hitz egiten Mikel berotu egiten da, argi ikusten da gaia gogoko duala eta ondo ikasia gañera...

Bainan... oraingo, haide berri horiek ez dute ondatuko abesti hoi en izakera?

—Ez ritmoa zerbait berritzeak ez dio sustraia aldatzen abestiari, gainera interprete bakoitzak beti eman behar dio bere estiloa.

Uste duzu aski dala abesti zaharrez baliatzea, gaur eguneko musika bat lortzeko?

—Abesti zahar auker oso gutxi-rek ezagutzen dituzte, nik uste dut beharrezkoa dala jendeari ezagutu araztea. Gainera hori lehendabiziko pausoa da, bigarrena berriak eratzia litzake.

Nola ikusten duzu, gaur eguneko euskal musika arina?

—Eres-egilleak ez diote garrantzirik ematen.

—Zure ustez ba du?

—Bai noski. Kontuan hartu zazu herriak abesten duan musika dala. Bizarra kentzen ari zeran bitartean ezin duzu bost abotsentzako egindako abesti bat kantatu. Garrantzirik ez' emate orregatikia, erderaz hitz egitenez dakitenak erderaz abesten dute... Gañera telebista eta irratia ren influentzia oso aundia da.

Eta euskeratutako abestiak?

—Behar bearrezkoak dira, bainan garaiz, kontuan hartu orain parte ez dirala sekulan ere behar dan garaiean eldu, guk abesterako, aspaldidanik daude modatik pasata. Bereala euskeratu behar litzazke, beste iskuntzetan bezela.

Auek denak jendeak onartzen dituela uste duzu?

—Dударik gabe "Soroak" en diskarekin garbi ikusten da "Salbatorre", oso abesti zaharra da eta giro berri horrekin oso polita iduritzen zait, "Ikusten" berriz euskeratutakoa. Jendeak bial onartu ditu.

Uste duzu euskal abesti berri bat sortuko dala?

—Bai garai batian beste ritmo batzuekin gertatu zan bezela, orain ere sortuko da euskal abesti berri

eta berezi bat, latindarren eta anglosajondarren desberdiña. Bere seillo berezi bat izango duana esan nahi dut. Gainera bere gaia maitzua izatea lortu behar litzake (alegia prolema espiritualekin, sozialekin ta...) tamala bai da jendeari iristeko, orrelako bide on bat alperrik galtzea.

Orretarako beharrezkoa litzakena?

—Konkursuak eratzia beste musika klasiakin bezela. Uste dut ba dala hordua, Euskal errian musika onek duana garrantzia ikusteko.

Au da, abeslari ta sendagille gazte onek diona, nere uztez gitarrarekin askoz obekiago esaten du.

Zorionak lehendabiziko exituengatik, bigarren diska itxoiten gelditzen naiz. Laister izan deila.

Landola-erramintak. Lan-tresna guzietarikoak. Galtzairu kalibratuak. Leunketa gaiak.

FERRETERIA UNZETA, S. A.

EIBAR. Apartado, 18. Ibarrecruz, 14
Urrut. 71.000



1.896

1.965

GIPUZKOA'KO PROBINTZI - ERATETXEA

(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru bearretan gure "PRESTAMEN SERBITZARITZA"z (Servicio de Préstamos) balia zaitez.

Zure baserria erosteko edo oietzeko
Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Aberea —azienda— erosteko edo obetzeko
Baratzeko frutuak obetzeko
Jakinbidean jarri zaitez Donostiako gure
7 ofizinetan eta Probintziako 59 skursaletan

TV - RADIO

TELEFUNKEN

MUNDU guzian famatua dan mark alemana

E L E M I

MIGUEL CELARAIN'enean
arkituko dezu

Urbietan, 24

Urrut. 111 ta 24.700

D O N O S T I A

GURELESA

GIPUZKOA'KO TA NAPARROA'KO ESNE ONENAKIN GERTUTAKO ESNEKIAK: ESNE PASTERIZATUA, ESNE SOILLA, ESNE-AUTSA, ESNE-GAÑA, GURINA TA ABAR. EGUNGO EGUNEAN, LURBIRA OSOKO ERRI AURRERATU GUZIETAN, ONELAKO ESNE TA ESNEKIAK BAKARRIK ERABILTZEN DIRA

GURELESA

Ez Merkenak,

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak. Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

RADIO - TELEVISION

INTER

TV - TRILUX

Saltzaillea:

CENTRAL DE MATERIALES ELECTRICOS S. A.

Beste edozein markakoa baño iru aldiz berriago ta gaurkoaga

Ordaintzeko erreztasun auniak

PERSONAJE BILLA

MIKEL LABOA

Duela egun gutxi, diska berri bat entzun nuen, Mikel Laboaren lehen diska. Abeslari gazte onek aintziñako abestiekin osatu du bere eresorta, baiñan aren abesteko erak eta gitarraren akordeak soñu zaharrak, esnatu bakarrik ez, baizik eta gaztetu, era ontako aide berri bat ematen die.

Lehendabiziko diska orretan ze abesti grabatu dituzu Mikel?

—O Pello, Pello, Aurtxo txikia, Bereterretxen eta Amonatxo. Denak zaharrak?



—Amonatxo ezik (Barbier da egilea), beste guzien egilea ez ezaguna da, orfikari atera urte batzuek izango dituztela... gainera beren gaia... Bereterretxen esate baterako, Euskal Herrian XV garren gizaldian (Beamontes'en eta Agramontes'en hartean) sortzen ziren gertaketa bat geio edesten da, zelan Lerin'eko kondeak Bereterretxe jauna (nii zuen. Etxeberritik Ezpeldoyrako bidartean dagoen harri irargai batek gogorazien du gertakizun au...

Gauz auetaz hitz egiten Mikel berotu egiten da, argi ikusten da gaia gogoko duala eta ondo ikasia gainera...

Bainan... oraingo, haide berri horiek ez dute ondatuko abesti hoiñ izakera?

—Ez ritmoa zerbait berritzeak ez dio sustraia aldatzen abestiari, gainera interprete bakoitzak beti eman behar dio bere estiloa.

Uste duzu aski dala abesti zaharrez baliatzea, gaur eguneko musika bat lortzeko?

—Abesti zahar auek oso gutxirek ezagutzen dituzte, nik uste dut beharrezkoa dala jendeari ezagutu araztea. Gainera hori lehenabiziko pausoa da, bigarrena berriak eratzia litzake.

Nola ikusten duzu, gaur eguneko euskal musika arifia?

—Eres-egileak ez diote garrantzirik ematen.

—Zure ustez ba du?

—Bai noski. Kontuan hartu zazu herriak abesten duan musika dala. Bizarra kentzen ari zeran bitartean ezin duzu bost abotsentzako egindako abesti bat kantatu. Garrantzirik ez emate orregatikia, erderaz hitz egiteaz dakitenak erderaz abesten dute... Gainera telebista eta irratiaren influentzia oso aundia da.

Eta euskeratutako abestiak?

—Behar bearrezkoak dira, baina garaiz, kontuan hartu orain parte ez dirala sekulan ere behar dan garaian eido, guk abesterako, aspaldidanik daude modatik pasata. Bereala euskeratu behar litzazke, beste iskuntzetan bezela.

Auek denak jendeak onartzen dituela uste duzu?

—Dudarik gabe "Soroak" en diskarekin garbi ikusten da "Salbatore", oso abesti zaharra da eta giro berri horrekin oso polita iduritzen zait, "Ikusten" berriz euskeratutakoa. Jendeak biak onartu ditu.

Uste duzu euskal abesti berri bat sortuko dala?

—Bai garai batian beste ritmo batzuekin gertatu zan bezela, orain ere sortuko da euskal abesti berri

eta berezi bat, latindarren eta anglosajondarren desberdina. Bere seillo berezi bat izango duana esan nahi dut. Gainera bere gaia maitua izatea lortu behar litzake (alegia prolema espiritualekin, sozialekin ta...) tamala bai da jendeari iristeko, orrelako bide on bat alperrik galtzea.

Orretarako beharrezkoa litzakena?

—Konkursuak eratzia beste musika klasiakin bezela. Uste dut ba dala hordua, Euskal errian musika onek duana garrantzia ikusteko.

Au da, abeslari ta sendagile gazte onek diona, nere uztez gitarrarekin askoz obekiago esaten du.

Zorionak lehenabiziko exituegatik, bigarrenko diska itxoiten gelditzen naiz. Laister izan deila.